

## Telesforo Monzon-en mendeburua (1904-2004)

Piarres XARRITON ZABALTZAGARAI

**Telesforo Monzon,  
Iparraldeko euskalzaleon animatzaile  
eta beste zenbait zertzelada**

Jaun Andre agurgarriak,

Lekukotasun gisa eman nahi nuke ene solasaldia. Finka ditzagun beraz hastetik ene zertzelada hauen mugak: Telesforo Monzon eta Maria Josefa Ganuza-rekin, II. mundu gerlatik landa hasi ziren ene harremanak eta beraz ez dezaket deus erran ordukotzat gure adiskidek berrogei bat urtez emana zuten bizitzaz. Gero berriz, 1973an Baionako Sant-Amandeko parrokiatik, familiako arazoengatik Parise-ra eta gero Kebekera joan naizenetik erran dezaket ez dudala Monzondarrekin harreman handirik izan.

Hona beraz, nondik nora doazen solasaldi honen zedarriak 1946-1973. Hots, hiru hamarraldi horietan eta nihonek 25-52 urte nituelarik apez gazte bezala, Pariseko eta Euskaldun gazteriaren aholkulari, Hazparneko Ikastegiko buruzagi eta azkenik Baionako erretore ohi bezala ezagutu dudan Monzonez nitzaizue gaur labor mintzatuko. Eta gainera, ene oroitzapenen berritzeko eta berretzeko nihonek zenbait liburu eta aldizkari erabili ditut, hauek baitira Koldo

Donibane Lohizune Dukontenean, 2004eko azaroaren 16an,  
arratsaldeko 6 orenetan.

Bergara Olaso Dorrean, 2004eko azaroaren 19an, arratsaldeko 7etan.

Eizagirrek Telesfororen Hitzak eta Idazkiak bildurik, Jaizkibel argitaletxearekin eskaini zizkigun 6 liburuak eta Gure Herria aldizkariak 1950 etik 1976ra argitaratu zituen hileroko guztiak.

Telesforo Monzonek bada bi poema liburu bazituen jada eginak: lehena Urrundik Mexikon, 1945ean eta bigarrena Gudarien egiñak Lapurdin, 1947an, elkarren ezagutzak egin genituelarik berak eskaini zizkidanak. Nihaur ere, egia erran, ordukotzat, euskalzaile munduan aski sartua nintzen eta, ene aldetik, bizpahiru idazlan itzulikatuak nituen, Chabier Gasteiz izenordearekin eta, Ganix Diharce Iratzeder adiskideak ezagutarazi zidan Mark Légasse zenaren diruarekin, argitaratuak: Aintzina II aldizkaria, arduradun gisa nik zuzendua eta gero Eskualdunak liburuxka 1943an euskaraz ondua eta Petite Histoire Religieuse du Pays Basque erdaraz agertua 1948an. Aitortuko dut beraz Telesforo Monzonekilako ene lehen harremanak euskalzaileen edo Piarres Lafittek zioen bezala Eskual Herrizaleen arteko harremanak izan zirela: jadanik ezagutzen eta miresten nituen Oxobiren, Piarres Ithurralderen, Ganix Diharce Iratzederren kantuekin eta gure elizetan kantatzen genituen XVIII. mendeko Kantika Ispirital batzuekin konpara nitzakeen alabaina Etxebeltz baserriko Alargun zoroari Bergarako semeak eskaintzen zizkion, aire ta guzti, bertso hunkigarriak.

Erromako ikasketak utzi nituen urte berean hain zuzen, hots, 1948an, berpiztu zen Eusko Ikaskuntza Iparraldean, Saint Pierre Antxuberro ohorezko buru zuela eta Jose Migel Barandiaran bera buruzagi propio; buruorde berriz Luis Dassance, Telesforo Monzon eta Piarres Lafitte; idazkari nagusi aldiz Manu Sota. Eta nola jaun horien gibeletik ala aitzinean baitzebiltzan beste euskalzaile ezagun zenbait, hala nola, Jose Antonio Agirre Lendakaria bera, Imanol Yntxausti, Mathieu apezpikua, Narbaitz kalonjea, Teodoro Hernandorena, Albert Constantin medikua, Jauregiberri medikua eta haren arreba Madalena Jauregiberri, ez da dudarik arrakasta ederra izan zuela Biarritzeko Euskal Ikasketen VII. Biltzarrak.

Biltzar horrek izan zukeen beste ondoriorik ere, baina guretzat, Biarritzeko lizeoan aste osoa iragaiteko parada eman ziguten egun horiek izan zuten gure belaunaldiko gazteen baitan eragin gaitza. Hor genituen alabaina, Alemanen denborako hausturen gaintetik, elkarren ezagutzak egin euskaltzale gazte askok, hala nola, adibidez, hain ezberdinak ziren Oihanburu dantzariak, Labéguerie kantariak,

Jon Mirande poetak, Mark Légasse piratak, Abeberry anaiek, Gué-  
raçague ahizpek, bai eta handik hara, uztail aldera, behin Hazparnen,  
gero Uztaritzen, Donapaulen, Donibane Lohizunen, eta Baionan, urte  
oroz, Mathieu, Inchauspe, Larroulet anaiek elkarretaratzen zituzten  
30/40 euskaldun ikasle gaztek, Biarritzeko Biltzarrean hurbildu eta  
miretsi genituen, Saint Pierre eta Mathieu apezpikuak, Jesus Mari  
Leizaola, aita Tomas Dassance beneditarra, Etienne Sallaberry eta  
bereziki Telesforo Monzon eta Manu Sota biritxien kideko maisuen  
irakaspenak bildu beharrez. Gure ustez alabaina maisu hoienganik  
zerbait ikas genezakeen guk gaztek sorterriaren iraganaz eta geroaz.

Geroxeago Karlos Santamariaren ideiatik sortuko den Udako  
Euskal Unibertsitatearen nolazpaiteko aitzin urratsak izan ziren egun  
horien aztarnak aurki daitezke 1950etik hona Gure Herria aldizkariak  
berpiztu-eta argitaratu zituen aita Dassanceren, Manu Sotaren edo  
Etienne Sallaberryren artikulu batzuetan, baina nihonek ere ez deza-  
ket ahantz nola arrats haietarik batez Uztaritzeko seminarioko plata-  
nondoen itzalean Telesforo Monzonek atxikitzen gintuen euskal uni-  
bertsitari gazte saldoa adi eta begira bere parablei, hain polliki  
kondatzen baitzigun nola berak Eusko Jaurilaritzaren izenean Alsina  
deitu itsasontzia euskaldun ihesliarrez bete, zeramalarik, 1941ean,  
Montevideora ala Mexikora buruz, nork jakin, Dakarreko portuan aur-  
kitu zuen Chiramberro Baxenabartar komisarioa, eta honek bere  
legezko paperak eskatu aitzin, eskaini zion Bergarako semeari, berak  
bere bulegoan gordea zeukan euskal kantu liburua, biek batean  
xaramelatzeko gisan "Ikusten duzu goizean" edo "Boga boga".

Beste zenbat ipuin ala kontu bizi bizi ez dizkiogu entzun geroztik  
kontatzen gure adiskide zenari, guziak zein eta zein oroigarriagoak!  
Haietarik zenbait aurkitu berri ditut Koldo Eizagirrek, urte haietako  
Alderdi aldizkarian Otea sinaturik Telesforok berak idatzi zituenetarik  
bilduak, 3. liburukian. Baina ez denak, hala nola, Barkoxeko Etxahu-  
nen pastoralatik edo Santa Garaziko Euskalzaleen Biltzarretik Biarritze  
eta Donibane etxerakoan gelditzen zirelarik Monzon eta Sota, bider-  
di, Isturitzeko harpe ziloen ondoan dagoen ene anaia Xalbaten Men-  
dilahartsuan moleta bero baten jateko eta berdin Lurdetik etxera-  
koan Puyoora heltzean Narbaitz kapellauarekin eta andere Jenofa  
Broussainekin gure beilari angailari debotek egin ohi omen zuten  
bezala dantza piko bat emaiten kantatuz kalonjeak asmatu baltsa  
airean Lurdeko Loreal!

Monzonek ordea ez zituen bakarrik Iparraldeko burjes seme alabak eta ikasleak edo Eduardo Chillida, Julio de Ajuriaguerra edo Jorda Gallasteguy-ren artista lagunak eta intelektualak bereganatu, bere kontalari doinu paregabearekin, antzerkilari aparta ere zen Dunat eta Landart gure adixkidek erran duten bezala eta ez bakarrik, "Zurgin zaharra", "Gure behia hila da", "Behorraren ostikoa", "Hazparneko Anderea", "Menditarrak", eta beste lanak berak idatzi eta taularatu zituelakotz Donibane Lohizuneko edo Heletako gaztekin, bainan maite zuelakotz nihonek ikusi nuen bezala bere adiskide Piarres Larzabalek bere lumaz idatzi zuen "Matalas"- oroigarria berak zioen bezala bere haixtur edo guraizekin apaintzen eta Baionako teatroan aurkezten Balonako jaun apezpikua ikaratzerainoko arrakastarekin.

Eta ezidurika, ez zitzaion arrazoirik falta Mgr Vincent gaixoari izitzeko, Monzon eta Larzabalen heineko antzekilari horiekin ezen, Baionako Katedralean hasi zelarik gose grebalarien liturgia berria, gure Errepublikaren polizia guziak baino beldurgarriago gertatu zitzaizkion bazter guztietako Jean Lacouture eta beste kazetari eta fotografoak, kalostrazpietan sartuak Baionako gotzain frantsesa bere bikario nagusiek lagundurik eta Euzko Jaurilaritzako sailburu ohia bere ihesliar grebalariez inguratua, biak buruz buru ikusi nahiz.

Alta bada zenbait hilabete lehenago katedrale gibelean zegoen Errepublikaren Auzitegi zaharrean gertatu zelarik Iparraldeko lehen auzi politiko historikoa, alegia euskaldunek antolatu frantses justiziarren aurkako lehen maskarada, Telesforok erakutsia zigun haren inguruan geunden lekuko arraro guztiei, hala nola Maotzetung-ek Txinatik haizatu Larrañaga apezpiku kaputxinoari, Mixel Labéguerie Kanboko auzapez deputatuari, Aita Aspiazu Argentinako kartzela guztien aholkulariari, Dutournier Sarako auzapezari, Martzel Mendiburu kalonjeari eta beste hamaika laguneri gure Sujeta bera hasi zitzaigularik aktore lanetan, XVIII mendeko Azkoitiko Zalduntxoan kapitaina, Peñafiorida kontea hasi omen zen bezala, ez zuela nehon hark hobetik ez eta parekorik komedian aritzeko Hazparnen erran ohi dugun bezala: Frantses Ephaile Lafont jaunak Marokako koloniatik etorri berriak ez zekien alabaina euskara tutik, ez entzun nahi ere Frantses tribunalean, etza galdetu ziolarik Frantses hitzik ez omen zekien lekukoari: "Votre nom?", "Votre profession?" Alegia euskara baizik ulertzen ez zuen Bergara Olasokoak itzea bezain zuzen ihardetsi

zion, zintzuorra ongi karrakatu ondoan eta zut zutik: "Ni Monzondar Telesfororo naiz!" "Franbuesak eta marrubiak artatzen ditut!" eta denak leher zorian irrifarrez geundela, bi gizonen elebidun elkarriketa bururatu orduko bere lekukoei buruz itzuli zen Bergarako aktore zalduntxo, gure onespena gozatzeko gisan, bitorios.

Bainan egun hauetan Baionan entzun baititugu Beñat Oyarzabal euskaltzain doktorearen inguruan IKER saileko irakasle jaun andereak bilduak XVIII. mendeko euskal literaturaz eta historiiaz solasean, tartetik konparatuz adibidez, Peñafloidak berak aurkezten zuen "El borracho burlado" antzerkia eta Bixenta Mogel-en Ipui Onak, uste dut XX. mendeko literatura eta historia aztertuko duten bihar edo etziko Ikerlek konparatuko dituztela Monzon eta Larzabal bi antzerki-lari handien obrak, baina erran bezala Bergarako Zalduna Azkoitia-rkoa bezala antzerki idazle, tularazle eta jokalaria ere izan bazen, Biarritzeko Biltzarraren kariaia, Torribio Alzagaren Ramuntxo Elissalde Zerbitzarik Lapurteraturik eman zutelarik Pako Eizagirrek Jeanne Salha eta haien lagunek Telesforo bera ere hor sartu zen Don Bernardoren itxura egiteko ez genuke adierazi nahi neholaz ere antzerki gizon huts izan zela ezagutu genuen Telesforo adiskidea, ezen ge-roago ene auzoan Villa Izarrakoein jadaneko hasiak zituen eztabaida politikoak aipatu gabe ere gehiegi ez luzatzeko ene erasia eta egun hauen paradaz balla Labayen jaunaren lekukotasuna atseginekin irakurri eta entzun ondoan Monzonen eta Leizaolaren arteko gorabehe-rez, erranen dut bakarrik pentsalari bezala Telesforok egin zuen lanaz konturatzeko Donostiako Frantziskanoetan eta Balonako apezetxean aldizkatuz Jakin aldizkariaren prestatzeko Rikardo Arregi, Joseba In-txausti, Karlos Santamaria, Monzon, Kanblong eta bestek egiten ge-nituen bilkurez balitekela kontatzeko, baina irakur bedi bederen, Burgoseko auzia baino lehen, 1969 an, Jakin-en hain zuzen, gure adiskideak eskaini zigun bigarren Mundu Gerlaz geroz, hogeita ha-mar urte barne, Euskal Herriko bi eskualdetan ikusi zuen Kontzien-tziaren Eboluzinoaz egin artikulua sakon eta mamitsua.

Hitzemana bainizuen 1970eko muga hori ez nuela hainbat gain-dituko honetan gelditzen naiz, nahiz 1977an Arrazuriko itzulia egin genuenez geroz orok bezala jakin dudan, nola erabili duen Telesfo-rok Herri Batasunaren makila, bera Balonako Ospitalean zendu zen arte. Bizkitartean azken aitormen hau eginen dizuet, Bergarako hileta surrealista haien lekuko izan baginen ere emaztea eta biok, bezpera-

goan, Maria Josefa zenak deitu ninduela Mendeberriko beren etxera, ene aitzineko ofizioaz oroiturik, elgarrekin hauta genitzan bere senar zenaren alde fededunok egin behar genituen hileta irakurketak eta toitoiz delak. Ez daukat ahanztekoa.